



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014/01/15

BILERA ZENBAKIA:1

ORDUA ETA LEKUA: ARRATSALDEKO 7etatik 9etara, Udaletxean

PARTEHARTZAILEAK: 20 parte hartzaile (7 gizonezko eta 13 emakume)

### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

## LANDUTAKO GAI ORDENA

- Herri bizitzan 2013. Urtean zehar landutako gaien errepassoa :  
2013. Urtean landu diren gaiak errepassatzearekin bat, 2014ko lanen egutegia osatzeko, gaia hauek 2014. Urtean segida izango duten aztertu behar da.
  - a. Liburutegia :  
Harrera zerbitzua, hilabetean behin martxan jartzea erabaki zen 2013. Urteko azterketan. Erabaki honen emaitzen berri ematen da, erabilera haundia ez bada ere, balorazio orokorrago bat egiteko zerbitzua beste 3 hilabetean aztertzea eta ondoren pasatzea balorazioa egitea erabakitzen da. 2014. Urtean jarraipena egitea nahikoa ikusten da lanketa sakonago bat egin gabe. Helburua betetzat ematen da.
  - b. Mintzalaguna.  
Sei talde sortuak dira eta martxan daude, talde batzuei jarraipena egiten ari zaie, beraien funtzionamenduan egokitzapen txiki batzu burutu beharrean bai dira. Motibazioa bultzatzeko ekintzak burutzeko asmoa daukate. 2014. Urtean Herri Biizitzan lanketa egitea beharrezkoa ikusten dute. Otsailean aztertuko da gaia sakonago. Balorazio oso positibia egiten dute
  - c. Jubilatu elkarte indartzea :  
Jubilatu gazteenen zerrenda egin genuen eta bertan agertzen ari direnekin biltzen ari da eta badirudi hauetako batzu preste gon daitezkeela, elkartean laguntzeko. Jubilatu Elkarteko Karguak osatzeko orduan egongo litzateke arazo nagusia, Presidentea, diruzaina eta idazkaria. Orain arteko juntako kideetatik 4-5 laguntza moduan jarraitzeko prest leudeke. Urteko ekintzen zerrenda prestatu da, beti ere kontutan izanik, elkartera sartuko liratekeen berriek aukera luketela Bizi nai elkarteari, aire eta ekintza berriak emateko. Lagun hauekin lanketa egitean



jarraitzea erabakitzen da eta martxoan gaia landuko genuke. Elkarteko kideek beraien kabuz egiterik ez daukatena Herri Bizitzako mahaitik laguntzeko erabakia hartzen da.

d. Itsasondo haurren herria :

Proiektua martxan jarria dago ta 2014rako hainbat ekintza burutzeko asmoa dute. Eskola, haur-eskola, ludoteka, gazteria zerbitzuaren artean sortu den dinamika eta elkarlana oso positiboa ikusten dute. Herri egunean ere parte hartu nahi dute. Ekaina inguruan balorazioa egingo dute. Eskolak Itsasondoko haurrak bertan matrikulatzeko kanpaina eta lanketa burutuko ditu Otsailean. Orain arte egindako ekintzak positiboki baloratzen dituzte

e. GAZTEDIA. GAZTETXEA-GAZTELEKUA

Arautu da gaztetxearen erabilera eta aste-bukaeratan erabiltzeko giltzak banatu dira. Mugimendua sumatzen dela eta horretan lan egitekotan dira. Berdinbideaneko tailerrak ere bertan burutzen dira.

f. KULTURA

2014eko kultur agenda burutu zen. Egutegiaren balorazioa ere positiboa egiten da. Batzuek agian tamaina haundiago baina orokorrean asko gustatu da. Kultura batzordetik azken hiruhilabetekoan egin diren ekintzen balorazio oso positiboa egiten da, herritarrek ekintza guztietan parte hartze ona izan dute eta arrakastatsuak izan dira. Arazoren bat izan bada, kultura batzordearen antolakuntzan izan da. 2014. Urterako erronka nagusiak, kultur agenda aurrera eramatea, Itsasondoko jaiak bai abuztukoak eta baita irailekoak indartzea eta 2015. Urteko agenda prestatzea.

Hurrengo ekintzak, Mami postre lehiaketa. Epaimahaia lotzen da eta Berostegira bisita lotu nahi da.

Ijito eguna, hurrengo bileran gurasoek egitaraua lotuago dakartenean herri bizitzatik bultzatzea erabakitzen da.

• HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BALORAZIOA :


Oso balorazio positiboa egiten da, bilerako 20 lagun inguru elkartzen gara, bakoitza herriko eragile, talde ezberdinen izenean eta piskanaka denen arteko koordinazioa lortzen ari dela iruditzen zaigu. Talde eta eragile bakoitzak egiten dituen ekintzak herriko ekintza moduan txertatzea lortzea da helburua, herri bizitza aberatsago bat lortzeko asmotan. Agenda 21eko ekintza planean biltzen ziren ekintza gehienak



landuta edo lantzen hasiak daudela ikusten da.

- 2014. Urteko urteko egutegia eta egitekoak zehaztu: Bederatzi bilera aurriztuz dira 2014. Urterako
  - a. OTSAILA: mintzalaguna. Eskolako matrikulazio kanpaina
  - b. MARTXOA: Jubilatuen lanketa
  - c. APIRILA: Herri eguna/ Haurren Herria/ Berdinbidean Balorazioa
  - d. MAIATZA: Kultura Batzordea/ Jaietako batzordea martxan jarri.
  - e. EKAINA: Nerabeen zerbitzuan gurasoen parte hartzea lortu.
  - f. UZTAILA
  - g. IRAILA: Jaiak
  - h. URRIA: Herri bizieta nora joan nahi dugun hausnarketa, helburuak eta bidea. + Aurrekontuak
  - i. AZAROA: Herri bizieta nora joan nahi dugun hausnarketa, helburuak eta bidea. + Aurrekontuak
- Komunikazioa hobetze aldera, hemendik aurrera ekintza bat egin behar denean behar komunikatiboak zehazteko bete beharreko plantilla aurkeztu da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Mintzalaguna	Otsaila	A.G. eta U.A.
Matrikulazio kanpaina bultzatu	Otsaila	Eskola-gurasoak
Jubilatu elkarteak indartu	Martxoa	E.M.
Herri Eguna	Apirila	Gazte Asanblada
Haurren Herria	Apirila	Gazte teknikaria
Balorazioa berdinbidean	Apirila	Gazte teknikaria
Jai batzordearen osaketa eta jaien prestaketa	Maiatza	Kultura



Nerabeen zerbitzuan gurasoen parte hartzea lotzea	Ekaina	Gazte teknikaria
	Uztaila	
Jaiak	Iraila	Kultura
Aurrekontuak+ hausnarketa	Urria	Zinegotzia
Aurrekontuak + hausnarketa	Azaroa	Zinegotzia
<b>HURRENGO BILERA</b>		
<p><b>Hurrengo bilera, Otsailaren 12 egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.</b>  Gai ordena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mintzalaguna</li> <li>• Eskolako matrikulazio kanpaina</li> <li>• Kultur ekintzen errepassoa</li> <li>• Talde bakoitzak 2014ko aurrekontua eta gastuak ekarri behar ditu</li> </ul>		